

Ordainbideak: BEHAR BAKOITZAK BEREA DU

Lehen inoiz ez ginen etxetik irteten diru-zorroa aldean eraman gabe... eta orain gauza bera gertatzen da mugikorrarekin. **Gure ohiturak, eskakizunak eta beharrak aldatu egin dira, eta ordainbideak ere gure bizimodura egokitu dira.**

Aukeratu egoera bakoitzerako egokiena!



Eskudirua

- Erabilgarria da larrialdietarako (adibidez, konexiorik ez badago) edo ordainketa txikietarako.

Taberna, litxarrerria-denda, kiosko eta gutxi ordaintzen den antzeko establezimenduetan erabili izan dugu normalean, baina haren erabilerak nabarmen egin du behera azken urteotan.

- Galdu edo lapurtuz gero, ia ezinezkoa da berreskuratzea.
- Zailagoa da gastuak kontrolatzea.
- Deserosoa da atzerrira joaten bazara eta dirua aldatu behar baduzu.

Kreditu- edo zordunketa-txartela

Edozein produktu edo zerbitzu erosteko, dela denda **fisikoetan** dela **online**.

Haren erabilera eskudiruaren aldean asko hedatu ondoren, protagonismoa partekatzen hasi da beste ordainbide batzuekin.

- **Moldakorra:** edozein erosketa-mota eta establezimendutarako balio du.
- **Erosoa:** atzerrira joaten bazara, kanbioa automatikoki egiten da erosketa bakoitzean.
- **Lasaitasuna eta segurtasuna:** txartela galtzen baduzu, blokeatu edo itzali ahal duzu zure bulegoan edo, noiznahi, LABORAL Kutxaren appean edo Online Bankan.
- Eragiketen erregistroak aukera ematen dizu **gastuak aztertu eta kontrolatzeko**.

Eskudirua edukitzeko txartela eta kutxazaina behar duzu, baina **zure txartelarekin zuzenean ordaintzen baduzu, segurtasun, erosotasun eta erabilgarritasun handiagoa izango duzu.**

Mugikordainketa

Denda fisikoetan ordaintzeko, saltokiko terminalera mugikorra hurbilduta besterik gabe.

Zure mugikorra txartelaren kopia balitz bezala erabil dezakezu ordaintzeko.

- Edonori ahaztu ahal zaio diru-zorroa etxean, baina... **nor irteten da gaur egun etxetik mugikorra aldean eraman gabe?**
- **Txartelaren abantaila berberak ditu:** moldakorra, segurua, oso eroso atzerrira joateko, eta gastuak kontrolatzeko aukera ematen du.
- **Segurtasun** handiagoa ematen du, ordaintzeko mugikorra desblokeatu behar baita.
- Zure mugikorra zaharra bada, gerta liteke teknologia hori ez onartzea, **baina gaur egun ia mugikor guztiek dute.**

Mugikorra **txartelaren kopia** bihurtzen da; beraz, **zure txartela itzaltzen edo blokeatzen baduzu, Mugikordainketa ere itzali edo blokeatu egingo da.**

BIZUM

Taldean, lanean, lagun artean edo familian ordaintzeko, dirua utzi edo itzultzeko, **dohaintzak** egiteko...

LABORAL Kutxaren LK Pay apparen bidez, berehalako ordainketak egin ahal izango dizkiezu BIZUMen alta emanda dauden kontaktuei.

- Erraz, azkar eta seguru.
- 1. Aplikazio **erraza eta intuitiboa**.
- 2. **Transferentzia** bat bezalakoa da, baina **ez duzu helburuko kontu-zenbakia zein den jakin behar**.
- 3. Gainera, **igorleak eta hartzaileak ez dute zertan banku berekoak izan**.

Kontuak argi!

Ez ahaztu zure **Online Bankan** eskuragarri duzun **ARGITU** aplikazioak erraztu egiten dizula txartelarekin, **Mugikordainketarekin edo BIZUMekin** egiten dituzun **gastu guztien kontrola**.

Eta gogoan izan: zalantzaren bat baduzu, zoaz zure **LABORAL Kutxako** bulegora eta zure gestoreak informatuko zaitu.